

### 3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusien artean gure proiektua funtziona dadin, autonomoak izango lirateke, eta horretarako haien zerbitzuak kontratatuko genituzke. Hala ere, institutuekin edo erakunde publikoekin aliantza bat eratuko genuke, kolaborazioen bat betetzeko interesa izango balute. Lehenbailen, magisteritza edota beraien ikasketa espezifikoak amaitu dituzten eta lanik aurkitu ez duten irakasleekin jarriko gara kontaktuan. Soldata finko bat jarriko diegu eta horrela beraien konfiantza irabaziko dugu. hasiera batean, pare bat hiru maisurekin nahikoa izango dela uste dugu. Maisu horiek, funtsezko ikasgaiak azaltzeko baliatuko ditugu hasiera batean, eta ikasgai bat baino gehiago azaltzeko ezaugarriak badituzte hobeto. Gainera, ekonomikoki ere esfortzu handiegia izango litzateke maisu gehiago kontratatzea. Hortaz, guk ere parte hartu beharko dugu foruan eta bideo tutorial batzuen eraketan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hainbat azalpen emateko gai garela uste dugu, eta horrela beste maisu batzuen kontratazioa eragotzi dezakegu.



Gure arteko jakinduria ikusiz, anderrek ekonomia eta matematikako hasierako bideoetan lagun dezakela konturatu gara. Bestalde, Julenek historia edota gaztelanian ere lagun dezake, maisu bat kontratzen dugun bitartean. Azkenik, Hegoik euskerako bideo eta zalantzak argitu litzazke eta bideo tutorialen edizioan lagundu. Guzti hau, hasierako pausuak direla kontzideratzen dugu, lehenbailen maisu espezializatuak kontratatuko ditugulako. Gure enpresak irabaziak izaten dituen momentuan, arlo guztietan hobetzen saiatuko gara. Informatikari bat gure taldera sartzea ere aukera hona izango litzatekela uste dugu, aplikazioa eramateko eta bertan sortuko arazoak konpontzeko.